

MUNDUKO ARROZAK

Ekimen baten aurkezpena



Bazterketatik txertaketara:

Bilboko Zabala, San Frantzisko eta Bilbo Zaharra auzoek urte askotako gizarte bazterketa gaiztoa sufritzen dute. Horren arrazoia, neurri handi batean, auzo hauei, bertan bizi diren pertsonen eta horien egoera sozialari eta pertsonalari instituzioek erakusten dieten ahazmena eta amnesia da. Estatu mailan beste hirietako auzo askok ere nozitzen duten egoera honek, pertsona askoren sentiberatasuna pizten du eta gaitz honen aurka borrokatzeko taldetan biltzera eramaten. Jomuga hau da: jaiotza, sentimendu, kultura, politika eta erlijio guztien gainetik pertsona guztientzat bizitzeko kondizio onak eta duinak lortzea.

Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoak birgaitzeko Koordinadora gizarte mugimendu eta ekimenetarako 20 taldetik gorakoz osatua dago. Hogei urte darama Koordinadora honek pertsona mailan eta sozial mailan bazterketa ingurua hobetu nahian. Ugari dira azkenaldi honetan gure kale eta plazetan etorkinak; baina oso zaila dute bizileku duina eta lana lortzea. Gauza bat da ez dela ikusten arazoaren bukaera; eta beste bat okerragoa, gero eta ugariagoak eta latzagoak direla eragozpenak. Bestalde, leporaino gaude bertakook seguritatez ezagatik: susmo txarrak eta nazkak harrapatzen gaitu.

***Bazterketaren aurka.
Herriaren parte hartzearen alde.
Ezberdin izatea onartuz.
Bizi baldintza egokiak guztientzat.***

Munduko arrozak: aurrera doan ekimena.

Giro honetan sortu zen 2004an Birgaitzearen aldeko Taldeen Koordinadoraren barruan *Munduko Arrozak* deitzen den ekimena. Jaia eta eskabidea, salaketa eta errebindikazioa da ekimen honen giroa. Bertakoen eta kanpotik etorritakoen arteko elkarren txertaketa; normaltasunezko harremana eta parte hartze soziala bultzatu nahi dituen jarduerak da *Munduko Arrozak*.

Arroza hartu dugu ezaugarri eta sinbolo: prestaera ezberdin, kolore eta zaporeen nahasketa; kultura guztietan ahora eramaten den janaria da *arroza*. Bera da gure auzoetako unibertsaltasun eta ezberdintasunaren ezaugarri ederrenetakoa; berak ematen digu ikustera pertsona eta kulturen arteko harremana.

Lehen urtekoa ikusita, 2005ean Iruña eta Gasteizko alde zaharretan gure kezka eta ardura berberak daramatzaten taldeei deia zabaldu genien, gurekin batera eta elkar koordinatuta parte har zezaten.

2006an berriro ospatu zen *Munduko Arrozak* hiru hirietan. 43 taldek, 1000 pertsonatik gora, hartu zuten parte Bilbon. Argi ikusi genuen gertaera hau, parte hartzen duten talde guztien aldetik ondo ikusia zegoela; balio handikoa zela; eta hurrengo noiz izango den galdezka daudela. Jendearen harrera xamur eta aberats honek bultzatzen gaitu ekimen hau ezagutaraztera, eta

**Arroza
mundu zabalaren eta
ezberdintasunaren ezaugarri**

2007ko ekainak 16, beste behin ere, bateratu eta koordinatuta *Munduko Arrozak* jaialdian parte hartzeko dei egitera. Herri eta auzo duin eta itxurosoen alde lanean diharduten mugimendu eta talde guztiei egiten diegu dei. Kulturen nahasketa aberastasun eta posibilitate berrien iturri dela uste duten gizon eta emakume guztientzat da deia. Kulturen arteko balioak erakutsi nahi dituztenentzat da deia. Eta auzo hauetan bizi diren guztientzat ere bai noski. Ziurtzat jotzen dugu, lekuan lekuko ahalbideen eta giro sozialaren arabera bideratuko dela ekimena eta aurrera eramango jarduera.

Elkarbanatu, esperimentatu eta ezberdintasuna zein aberatsa den erakutsi

Erakutsi, hori baita hitza: espazio publikora aterako gara, auzoko plaza nagusia hartuko dugu. Taldeen eta mugimendu sozialen sare zabalari egiten diegu dei: etorkinen elkarteei, gure auzoetako pertsona normahiri... festara bil daitezten; parte har dezaten; goza dezaten eta ondo pasa; errebindika dezaten. Eta batez ere, kultura ezberdinetako mosaiko hau osatzen dugun pertsonen arteko harremanen aberastasuna esperimentera dezaten.

Mugimendu sozialetik sortua da *Munduko Arrozak*; herri izaera du; autogestionatua da. Hortaz, herri instituzioen laguntzak bazter uzten ditu, kalea okupatzeko beharrezkoak diren baimenak ezik. Ekimenerako eta eraketarako askatasun osoa uzten digu horrek baina era berean, ekimena aurrera eramateko beharrezko zaizkigun diru laguntzen bilaketak ahalegin handia eskatzen digu.

Gertakariaren eguna erabakita, Iruña eta Gasteizko taldeekin batera, eskura dauzkagun hedabide guztiak erabiliz, zabalkundearen aroa hasten dugu, publikitatearena alegia. Horretarako talde askorengana jotzen dugu e-mailen bidez eta gure web orria: www.mundukoarrozak.info informazio berriarekin martxan jartzen dugu

**Auzo eta herri senidetuta,
herriko plazan,
ezberdintasunaren
aberratasuna erakusten**

Koordinadorak aurrera eraman nahi diren ekintza guztien aurre-diseinua eratzeko lan taldea antolatuko du: egun horretan zein sentsibilizazio, zein salaketa, zein ekarpen zehatz azpimarratu nahi diren begiratu. Helburu

argienetako bat, talde eta pertsona ezberdinen parte hartze zabala lortzea da. Horrela erakutsiko baita gure artean dabilzan kulturen aniztasuna. Taldeei ekintzaren bat aurrera eraman dezaten erregutzen diegu bada: musika, dantza, kantu, abesbatza, haurrentzat jolasak, antzerki lana, ekimenari buruzko irratia emanaldia, kalejira, produktuen dastapena, erakusketak, eta abar. Jasoko diren ideiekin Koordinadorak egunean zeharreko egitaraua apailatuko du.

Egunaren nondik norakoa

Hiri bakoitzean ekimenaren nondik norakoaren hari nagusia berbera izango bada ere, honoko baldintzen arabera ezberdina gerta liteke: leku bakoitzeko posibilitateak zein diren –sukaldeko lana esparru irekian egin beharra eta beste-; hiri bakoitzean bereziki zer azaleratu nahi den, zer oihukatu, zer errebindikatu; parte hartzaileen inplikatzeko gogoia zein mailakoa den... Bilbon, kamioiak hustu bezain laster, goizeko 10etan, erakundeak aulkiak eta mahaiak banatuko ditu. Taldeak plazan banatzen doaz eta lehiaketara aurkeztuko direnek arroz prestatetari ekiten diote. Zenbait taldek aurretik prestatuta, beste zenbaitek bat-batekoan, betetzen ari den plazari kolorea eta erritmoa emango diote. Une hori da, herri-espazioa apaintzeko, salaketa eta errebindikazioz, taldeen sinboloz betetzeko une egokia. Une berean, txikienek tailer eta jolasekin gozatzen hasiko dira. 13,30 inguru, garailea nor den jakiteko arrozen dastatze lana etorriko da. 14,30 inguru taldekako herri-bazkaria. 16tan, taldeek aurretik prestatutakoarekin bazkalondoko jaialdiari hasiera emango zaio. Giroa behera etorriko denean amaituko da festa.

**Datorren hitzordua
2007ko ekainaren 16a.**

BIL ZAITEZTE

Errealitate berria eraikitzen.

Festa eta errebindikazioa da *Munduko Arrozak*. Auzoen eta auzokoekiko utzikeriaren salaketa; bere eraginik ezagatik erakundeei ematen zaien abisua; kulturen nahasketaren aldeko desafioa; kultura eta pertsona ezberdinen arteko aberastasunari baietza; giza bizitzako baldintzak hobetzearen aldeko deiarra; bat-bateko parte hartzeari irekitako eremua; autogestioa; sarean egiten den lana; herri ekimenari bultzada; anai bihurtutako auzoak; kultur aniztasunaren adierazpena; harremanetarako esparrua; errealitateari begira minberatasuna pizteko lana; herri-esparrua harreman-esparru bihurtzea; mestizajea; mundu berria helburu lanean ari diren talde eta pertsonen agertokia; ongizatearen eta gozamenaren sentsazioa. Hori guztia duzu *Munduko Arrozak*. Hori guztia eta askozaz gehiago. Baina, teorien eta ideologiaren ikuspegitik haratago, guztiz bereziki ezer azpimarratu nahiko bagenu, egun honek, ezagutzeko, harremanetan sartzeko, hau da, egoera, sineste, kultura, jaiotza ezberdineko pertsonekin esperientzia zehatzak izateko eskaintzen duen abagunea da. Pertsonen eta taldeen buruzko aurreiritzi eta estereotipo ugari zalantzan jartzeko abagunea duzu egun hau. Eta ezberdina gertatzen zaiguna gure artean txertatzeko eta berarekin bizikidetzara normalizatua eramateko jarrera hartzeko eguna.

Zuekin, nor bakoitzarekiko eta herri errealitate zuzenago eta duinago baten aldeko borroka daramazuenekin banatu nahi izan dugu herriaren parte-hartze esperientzia aberats hau. Horrela ba, 2007ko ekainaren 16an *Munduko Arrozak* ospakizunera bil zaitezten dei egiten dizuegu. Harro izango gara leku berrietan talde berriak biltzen badira ekimen honetara.

Bilbon 2007ko martxoaren 15ean.
Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalako Taldeen koordinakundea

Oharra: Informazio gehiagorako edo 2007ko Munduko Arrozak ediziorako atxikimenduak egiteko, jar zaitezte harremanetan gurekin:
patximanrique@lasalle.es edo carlosaskunze@gmail.com

Esker aunitz.